

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Fukushima azaroan

JAPONIAKO Segurtasun Nuklearreko Batzordeak azarna batzuk eman ditu Fukushima-ren desmuntatzeaz. 30 urtetik gora behar izango dira zentralako lehenengo eta laugarren erreaktoreak desmuntatzeko. 2015. urtearen ondoren hasiko dira aztertzen erabilitako erregeia nola atera, nora eraman eta nola tratatu eta gorde, eta 2022. urtetik aurrera galdatutako erregaiarekin gauza bera egi-teaz pentsatzen hasiko dira.



Aipatu prozesuak arrakastaz burutzen badira ere, ziurtzat jotzen da erregeia eta hondakinak garraiatzeko unean hainbat lurralde kutsatuko direla. Asko edo gutxi, ez dakite, baina garraioa zenbat eta luzeagoa izan gero eta aukera gehiago izango da lur-eremu handiak kutsatzeko.

Datuok urriaren amaieran publiko egin zituen arestian aipatu erakundeak, eta nahikoa garbi adierazten dute zentralak bizi duen egoeraren konplexutasuna. Gainera, azaroaren 2an Japoniako Gobernuak fisio partzial baten berri eman zuen, ustez kalte gutxien zeukan bigarren erreaktorean.



## Bere burua desinfektatzen duen kotoiaren bila

KALIFORNIAKO UNIBERTSITATEKO Ning Liu eta Gang Sun ikerlariek kotoi-zuntzetan 2-AQC konposatua txertatzeko metodoa asmatu dute. Substantzia hori tinko itsasten zaio kotoiaren zelulosari, eta ia ezinezkoa da askatzea.

Argiaren aurrean, 2-AQC konposatuak oxigenoarekin erreakziona dezaketen erradikal askeak sortzen ditu, eta horiek bakterioak hil eta pestizidek edo toxinek dituzten hainbat konposatu organiko deskonposatu ditzakete.

2-AQC garestia denez, antzeko propietateak dituzten beste substantzia batzuekin ere probak egiten ari dira, arropak asko garestitu ez daitezen.



WWW.7MEDIOS.COM

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak



interaktiboa  
www.iametza.com  
T.943 37 67 16

## 2011ko zuloa Antartikako ozono-geruzan

Antartikako ozono-geruzako zuloaren tamaina azken hamarkadako batez bestekoa- ren oso antzekoa izan da aurt- en. Desberdintasun bakarra da urriaren erditik zuloaren tamaina dezente txikitzen bada ere, aurtien azaroaren bigarren astera arte iraun duela ohi baino handiago.

<http://ttiki.com/32461> (Ingelesez)

## Epe luzerako erabakietan zaharrak nagusi

60 urtetik gorako pertsonen 20 urte inguru dutenek baino arrakasta handiagoa izaten dute epe luzerako erabakiak hartzean. Gazteak epe motze- rako mozkinen bila aritzen omen dira, eta zaharrak epe luzeari begira. Hortxe ei dago arrakastaren gakoa.

<http://ttiki.com/32462> (Gaztelaniaz)

## Zulo beltzak "lupa" bidez aztergai

Hubble teleskopiotik urrunegi dauden quasarrak ikusteko, tarteko galaxiak erabil daitezke lupa baten lente gisa. Horixe egin du Valentziako Unibertsit- ateko Jose Muñozek zuzendu- tako lantaldeak. Metodo horren bidez 13.000 milioi argi-urtera dauden zulo bel- tzen behaketa erraztuko da.

<http://ttiki.com/32463> (Frantsesez)